

## Opil Eguna Hondarribian

*Hondarribia*, 13. zk., 1987-05: 5.

Opil-Eguna San Markos-etan, apirilak 25ean, ospatzen da.

Azkuek bere hiztegian dionez, lehendabizi artoarekin egindakoari deitzen zitaion opila, eta gero gariarekin egindakoari ere bai; gaur gari finarekin egiten ditugu, mokoa asko findu zaigu eta. Horretxegatik dira, eta ez besterik, gaurko pilak garestiak!

Bedeinkatua opil hauek daramatzaten arraultzak, bai, lehengo oilo beretatik datozenak dira; plastikozkoak jartzen ez dizkiguten arte.

Ohitura hau ez da Hondarribikoa bakarrik; San Markos-ogia Gipuzkoa osoan ezagutzen da, eta "amabitxiak Paskoz besoetakoeri ematen dion opil irumuturrekoa" bezala. Hirumuturrekoa borobildu zaigu Hondarribian eta bestetan, ikusten denez. Irunen ere ohitura bera aurkitzen dugu aspaldidanik, garesti eta guzti.

Irunen, Hondarribian bezala, mendisoroak bedeinkatzeko usadiotik hasi zen. Bide luzeak egiten zituzten prozezioz, nonbait, eta erromesak jan-edanak eramaten hasi ziren, bideko atsedenditxo batean fardeltxo astintzeko asmotan. Denboraz, jateko eramaten zen ogia ere bedeinkatzen hasi zen apaiza, soroetako gariak eta artoak bezalaxe. Ogia, opildu egin zen gero, eta geroxeago arraultza egosiekin hobea zela, legorra baino, eta biak ezkonduaz gero arraultza hauek gorritzen ere hasi ziren, polita egiten zuelako edo, eta dena, zapi zuri ederretan bildua eraman ohi zen opariaren bedeinkapena errespeto handiz egiteko asmoz. Baina Irungo Udaletxeak opila bustitzeko sagi bat ardo jartzea erabaki zuen 1804an. Beti aurrera! Baina aurreregi joatea ez ote ez, gero, prozesioan ardoz betetako sagi bat sartzea, anda eta guzti?

Junkaleko apaizentzat, prozesioaren formaltasuna haustea zen, eta ardoa jartzen zuen Udala eta Saindura jartzen zuen kleroa haserretu ziren; apaizek, huelga; baina eskrupulu gutxiago zuen kaputxino bat aurkitu zuten, eta bedeinkapena istilurik gabe egin zen. Gauzak honela, hurrengo urtean gauzak bere lekura etorri eta Parrokiako kleroa eta herriko Udala konpondu ziren berriz.

Hala ere, laster, prozesio luze eta istilugarri haiek utzi eta bedeinkapena Elizaurreko plazatik mugitu gabe egiten hasi ziren.

Orain telebisioz egiten diren modura.

Hondarribian, Lonjan zegoen San Markos-en gurutzean egiten zen; gero "Ainara"ko jardinei iskina egiten duen zati polit batean egin zioten leku berezia gurutzeari, eta geroztik hurbil dagoen elizatik letaniak abesten jaitsi eta gero, debozio handiz egiten zen bedeinkapena. Baina, hara nola hasi garen gauzak errazten: haraino joaten denak, meritua du San Markosen aurrean, baina norberak bere etxeko leihoan edo balkoiean goizeko bederatzia puntu fardeltxoak jartzen badu, balio bera du.

Berandu jeiki zitzaidan alabatxoak esana dut hau.

Honek gauza bat erakusten dit niri; ohitura polit hauek errazkeriaz goitik behera datozela, eta gaur ez dutela sorrerako eragin hura; osorik ahaztu ere egin garela nola eta

zergatik hain errazki bedeinkatzen ditugun gaur opilak; eta komeni da, noizean behin, paperezko kukurutxotan ematen dizkiguten patatatxo mehe prejituak, baratzan ongi atxurtutako lurlean otsaila-martxoan erein, landarea zomorroengandik zaindu eta uztailean atxurrez ataratzen den igali bat dela, lanaren fruitu bat dela gogoraztea.

Hasiak baigara galirina nondik datorren galdezka!